

Agustinatako obra maiatzean hasi eta 2005eko udararako bukatuko dute

■ Konbentuaren azpikaldean hasiko dira orain obrak ■ Alde hori ia erabat bukatzean ekingo diote Zinkoenea inguruari ■ Eroskirekin gestioak aurreratuta daude 1.000 metroko lokal komertziala jartzeko.


AGUSTINATAKO proiektuak pasa ditu pasa beharreko tramite guztiak eta maiatzean hasiko dira obrak, lanak egingo dituen promotorak Kronikari konfirmatu dionez. Proiektu horrekin, batetik Agustinatako inguru guztia urbanizatuko da, eta lokal komertzialak, hotela, eta etxeak joango dira; Zinkoenea aldea, berriz, oinez ibiltzeko jarriko dute. Bestetik, konbentua kanpo eta barru berri egingo dute, baina, hori beste obra bat izango da, ez maiatzean hasiko dena.

Agustinatako obra bi faseetan egingo dute. Aurrena, konbentu azpikaldean hasiko dira lanean, lokal komertzialak, hotela eta etxeak dijoazten alderdi horretan. Urte t'erdian inguruan hori dena oso aurreratuta egotea espero du promotorak. Inguru hori dena bukatzean helduko diote Zinkoeneari. Gauzak normal dijoazela, 24-28 hilabetean dena bukatuta egotea espero dute, 2005eko udararako, alegia. Urbanizazio guztia 2 miloi euro inguru kostako da.

Obra hasieran, promotorak panel haundi bat jarriko du Zinkoenean egingo den lana ilustratzeko.

Eroskirekin gestioak

Agustinatako proiektuan pisu handia du zerbitzuetako aktibitate komertzialak. Denera, 7.500 m² izango dira aktibitate ekonomikorako eta promotorak aitortu du eskea badagoela. Eroskirekin gestioak oso aurreratuta daude 1.000 metroko zentro komertziala jartzeko (hori da aktibitate batek hartu lezakeen metraje topea) eta beste zen-



AGUSTINAK

Lokal komertzialak eta hotela

Konbentu atzean lokal komertzialak eta hotela dijoaz, partzela berean: 2.750 metro lokalentzat, eta 2.700 hotela-entzatzat. Horiez gain, etxe azpitzen ere badijoaz lokalak: 2.300 metro inguru, denera, eta aparkalekuak.

60 etxe inguru

Etxebizitzak Karmelo Labaka eta Antziola kaleko kruzetara egingo dituzte. Denera, 60 inguru egingo dituzte, gela bat, bi, hiru eta lauokak. Haundienak, terraza eta guztikoak izango dira.

Konbentua berri

Konbentua berri eta puskatuta egingo diote, Monumentu Artistiko Historikoa ez den atzeko eranskina. Bueltan, dena jardina izango du eta metro inguruko petrilak itxiko du.

Trafikoa: Konplejo osoa, rotonda

Zinkoenea ia dena oinezkoentzatzat izango da. Trafikoa konplejoaren kanpokaldetik ibiliko da, direkzio bakarrean. Herri barrura Elkano kaltetik sartuko da. Txirrita kalea jeisteko izango da. Herriatik ateera, berriz, Atsegindetik eta Txantxillatik barrena gelditu liteke.

bait aktibitate ekonomikorak ere badute Agustinatako etortzeko borondatea.

Itxura denez, hotela da oraingoz sektorearen interesik piztu ezinda dabilena. □

ELIZA EBANJELIKOA

Eztabaida-seminarioa gaur Biterin

DROGA-menpekotasunaren inguruko jardunaldiak dira Biterin, atzo eta gaur, Hernaniko Eliza Ebanjelikoak antolatuta, eta Ongintza Patronatuko Prebentzio Sailak lagunduta. Gaur taldean elkartuko dira eta Hernaniko egocerrari buruz hitz egingo dute. Gero, denen artean ondorioak aterako dituzte. Antolatzaileek dei egin diete gai honen inguruan interesa duten hermaniar guztiei. Gaur, Biterin, 10:00etatik 13:00etara. □

KORRIKA 13

Herri afaria Tilosetan, soziedadeek jarrita

KORRIKA apirilaren 6an pasako da Hernanitik, goizaldeko 02:30-etan, eta hilaren 5ean, gaur zortzi, herri afaria dago Tilosetan. Karobi, Elur-Txori, Xalaparta, Etxeberri eta Peña Otaño elkarteek jarriko dute afaria Korrikaren alde: arrain zopa eta haragi gixatua. Epaimahaia ere egongo da afaririk gozoena zein elkartek jarri duen erabakitzeko. Afari txartelak Oindi eta Kitto tabernetan eta AEKn bertan daude, 12 eurotan (Korrikako txartela dutenak 10 eurotan).

Korrikaren bueltan, AEKk jakinarazi du, kilometroak erosteko azken eguna apirilaren 1a dela, 2an kilometro banaketa egingo baita. Bestalde, Korrika 11 eta 12ko argazkiak Biteri kultur etxean daude nahi duenak ikusteko. □

TXANTXANGORRI

Batzarra bihar

TXANTXANGORRI elkarteak ez ohizko batzarra du bihar. Otsailaren 2an erabakitzeke gelditu ziren gaiak eztabaidatuko dituzte, reglamentu aldaketari dagozkienak, soziedadearen bueltakoak eta kirol gaiak. Lehen konbokatoria goizeko 09:00etan da eta bigarrena 09:30etan. □

**Antziola-Motor**
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

ford Tourneo
Connect

Gogortasunaren



ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazkenean 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13



**IRUBIDE
JATETXEA**

Epele auzoa 7 - HERNANI
☎ 943 552 480
Mobila: 667 208 702

Telemar ITXASTELE S.L.

MARTXOAN
PHILIPSEN
eskeintza
bereziak
14" pulgadako
telebistetatik
32" pulgadakotara



TELEMAR Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

■ BOLA - ERREGULARITATE TXAPELKETA HERNANIN



Ezkerrean, Joxe Ugalde kontzentratuta eta eskubian Migel Burugain bola tiratzen.

Etxean bentaja ateratzera bihar

■ Ugalde eta Burugain hernaniarrak lider dihoaz Erregularitatean, Alustizarekin batera.

ERREGULARITATE txapelketako 9garren tiraldia Ereñotzuko bolatokian izango da bihar, eta hernaniarrak saiaturko dira kontrarioak atzean uzten. Erregularitatea 12 tiraldietara da, eta hiru besterik falta ez direla, bi bolari hernaniar eta zeraingar bat dihoaz aurrena, 312na brilarekin.

Elur-Txoriko Joxe Ugalde eta Migel Burugain bolariak oso lan ona egin dute azkeneko asteotan, eta orain artean lider bakar-bakarrik joan denaren parean jarri dira biak.

Horiek biak ez ezik, Ibon Miner Hernaniko txapeliduna oso ondo sailkatua dago. Ur-

Miako bolaria bi brila atzetik bakarrik dihoaz eta, Ereñotzuko bolatokian asko ibilia izaki, gaur aukera haundiak ditu klasiifikazioan gora egiteko.

Gainerako bolariak ere badituzte oraindik goian sartzeko aukerak, baina, goiko murturretik urrutixeago daude. Antonio Miner ereñotzuarra da igandean aurreko puntan ibili litekeen beste bolari bat, bolatokiari eskua inork baino hobeto hartuta izango baitio.

Bolatoki bakoitza mundu bat Pelotan frontoi batetik bestera aldea badago, bolan zer esanik ez bolatoki batetik beste-

ra. Bolatoki bakoitzak bere teknika eskatzen du eta era batera edo bestera jarria egoiteak alde haundia du. Bolan, normalean goiz eta arratsalde tiratzen da, eta bolatoki bera, goizetik arratsaldera ere asko aldatu liteke.

Horiek denak kontuan hartuta, itxuraz, etxean tiratzeak bentaja behar luke. Baina, ez da beti hala izaten. Erregularitatea Hernanin hasi da aurtan, Benta Berriko bolatokian, eta Burugain bakarra izan zen fin ibili zena. Eta, hernaniarrak lider Mutiloan jarri dira.

Biharko tiraldia goizeko 09:30ak aldera hasiko da. □

■ HITZ BITAN

✓ TXIRRINDULARITZA

Gazteen probak gaur. Hernaniko txirrindulari gazteek lasterketak dituzte gaur. Infantil eta alebinek Hernanin dute proba, gaur 16:30etan, Ibarluze poligonon. Kaiku taldearekin irtingo diren hernaniarrak dira: Axel Trantxe, Jon Mikel Becerra, Oinatz Arizaga eta Aitor Larrañaga. Dagoneko hiru proba jokatu dituzte txirrindulari gazteek eta hernaniarrak forman jartzen hasiak dira. Infantil eta alebinez gain kadeteek ere karrera dute gaur, Urretxun, 15:45etan. Kadeteek 46 kilometroko proba izango dute. Hernaniarrak dira: Ander Iradi, Aitor Asiain, Garikoitz Sanchez, Txaber Zabaleta eta Axier Vicente.

✓ ZINEA

‘Un padre de cuidado’ eta ‘Los lunes al sol’. Bi pelikula botako dituzte gaur Biterin: umeentzat *Un padre de cuidado*, 17:00etan; eta helduentzat *Los lunes al sol*, 19:30etan eta 22:30etan.

✓ ERRUGBIA

Hernanik 43-3 irabazi zion Atletikori. Asteburuko partidua ostegunera aurreratu zuten Hernani eta Atletikok eta etxeko taldeak erraz irabazi zuen. Atletikok nahiko ondo eutsi zion partiduari hasieran, baina, gero behera egin zuten eta hernaniarek errepasso ederra eman zieten donostiarrei. Hernanik datorren asteburuan bukatuko du liga, Santander liderraren kontra jokatu. Hernanik 3garren bukatuko du, igotzeko aukerarik gabe, baina, postu pribilejiatuan. Santanderrek, berriz, bihar Durangori irabazten badio lider geldituko da, Hernaniren kontra jokatzeko.

✓ FUTBOLA

Mutilak Bergaran eta neskak Donostian, gaur. Mutil eta nesken lehen taldeek gaur dute partidua. Gorengo taldeak Bergaran jokatu du gaur 16:30etan. Saikapeneko zulotik atera nahi badute irabazi beharra daukate. Emakumezkoen kopan Hernanik Luberriren kontra jokatu du Berion, gaur arratsaldeko 19:15etan.

✓ UR-LUDOTEKA

Ur-jolasak igandean. Bihar 10:30etatik 12:30etara Ur-jolasak izango dira igerilekuan umeentzat. Monitoreekin edo gurasoekin ibili litezke umeak, jokuak aukeran izango baitira. Igeri egin nahi dutenentzat ere egongo dira kaleak libre.

✓ PELOTA

Pelotariak futboleant. Gipuzkoako paleta goma jokalaria eta jokalaria izandakoak gaur bilduko dira Hernanin, futbol partidua jokatzeko. Arratsaldeko 18:00etan kiroldegian dute partidua. Ondoren, sagardotegira joango dira, izerditan botek erreperatuz. Aurtengoa 9garren urtea da biltzen direla eta antolatzaileek diotenez helburua da pelotan dabilzan eta ibiltzen diren neskak elkarrekin bildu, txapelketan gertatutakoak hitz egin, asmo berriak azaldu eta aitzikia horretan partanda pixka bat egitea. □

KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
	Taldeak	Non	Noiz		Taldeak	Non	Noiz
Goren.	Bergara-Hernani	Agonosh	Gaur16:30	Kronika Txapelketa			
Emak.Li	Lubeni-Hernani	Berib	Gaur19:15	Esk. 2naka	Zapitebeberri/ker-A iko	Tibseta	Gaur16:00
1. Enej.	Sto Tomas-Hernani	Berib	Bhar16:00	Esk. 2naka	Txutxi-Ko Ito/Tutu-A ralar	Tibseta	Gaur16:30
Gaz.Naz	Hernani-R eal Sociedad	Zubipe	Gaur16:30	Esk. 2naka	M ujka-Egaxa/Leganeta-Ezeiza	Tibseta	Gaur17:00
Gaz.Oh.	Ondiz-Hernani	A lam ita	Gaur16:00	Esk. 2naka	Joseba-Ieaki/H uzi-V ilar	Tibseta	Gaur17:30
Kad.Oho	Hernani-Lengokoak	Zubipe	Gaur12:30	Hernaniko Pala Txapelketa			
Kad.2.	Hernani-Vasconia	Zubipe	Bhar11:30	Ligila	In az-Gaizka/Lujanbb-O rtega	Kio Hegia	Gaur16:30
HaurOh.	Tobsa-Hernani	Berazubi	Gaur11:00	Ligila	Leganeta-A gine/haxo-Xapo	Kio Hegia	Bhar10:30
ERRUGBIA				Ligila	O larzabal/G il/Egaxa-M ibelena	Kio Hegia	Bhar11:30
Kad.Eus.	Hernani-Zamautz	Landaie	Gaur11:00	Ligila	Ibai-Ieaki/A xier-Juan M ari	Kio Hegia	Bhar12:30
MAHATENISA				Errem ontea - Galarreta			
1.L.Naz.	Bungos-Hernani	Bungos	Gaur17:00	1) Iuna-Ie-A izpuna II/Urteaga-B adib a	Galaneta	Gaur16:00	
Auton.	Easo-Hernani-A uko	Kio Hegia	Bhar10:00	2) M atchi-Iraite/E lizalde-A izpuni	Galaneta	Gaur17:00	
Gipuzko	Easo-Hernani-Lubeni	Iun	Gaur16:00	3) Zeberio IHEtobe/A Iuna Flizaso	Galaneta	Gaur18:00	
BOLEBOLA				4) Unetabizkaia IM endizabal/Sarasua-Txikuri	Galaneta	Gaur19:00	
Jubenilak	Gas-Hernani-G alakao	Kio Hegia	Bhar10:30	WATEPLOA			
Jubenilak	G alakao-R ekaie	Kio Hegia	Bhar11:30	2 Euskal	Ubat-Hernani	Em ua	Gaur19:30
Jubenilak	Gas-Hernani-R ekaie	Kio Hegia	Bhar12:30				

GALARRETA JAI-ALAI FRONTOIA

Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- partidua: Iturralde - Aizpurua II / Uterga - Badiola
- partidua: Matxin - Iriarte / Elizalde - Aizpuru
- partidua: Zeberio II - Etxabe / Altuna I - Lizaso
- partidua: Urretabizkaia I - Mendizabal / Sarasua - Txikuri

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik

Bihar igandea: GAITZA taldea eta DJ ALAIN

OIALUME BILTOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
☎ Taxiak: 943 550093	☎ Egunez: Bulnes
☎ Udaltzaingoa: 943 333288	Florida auzoa
☎ DYA: 943 464622	☎ 943 557738
☎ Autobusak: 943 556662	☎ Gaez: Bulnes
☎ Anbulatorioa: 943 006666	Florida auzoa
☎ Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

Pisua daukat salgai Karabelen. Bi logela, sukaldea, sala eta komona ditu. Interesatuek deitu: **943 55 34 84**

Neska bat behar dugu umeak zaintzeko, 8:00etatik 17:00etara. Deitu: **943 55 37 66 (Arratsaldeko 20:00etatik aurrera)**

Pisu konpartitu baten bila nabil. Koldo. Deitu: **943 55 49 64**

Desbrozadora bat daukat saltzeko. Bigarren eskukoak HONDA UM 536. Interesatuek deitu: **943 55 54 36**

Garajea salgai Urbieta kalean: **943 55 20 81**

Etxebizitza eta lokaletarako mota guztietako instalazio elektrikoak egiten dira (segurtasuna, energi aurreztea, erosotasuna,...). Deitu: **627 51 97 76**

JANTZI DENDA

AMBOTO

AMBOTO
Uaberriko erro-pak zure naurrira jartzen ditugu.
Hemen gaituzi.

Nagusia 54 - HERNANI- Tel.:943 55 23 40

Udaberrian tinteak eta metxak egingo dira gehiena Hernaniko pelukeritan

■ Tinteak edo metxak nahi ditu jende gehienak: kolore bat, bi edo gehiago nahastuta. Tendentzia udaberrian haunditu egiten da.

■ Pelukeriek betiko klientekin funtzionatzen dute, eta norma-lean hilabete edo hilabete t'erdian behin joaten da bakoitza.

■ Goi moda Londresek markatzen du, baina, eragin haundia dauka telebistak edo kalean ikusten denak.

UDABERRIA beti izan da aldaketa garaia, mugalari-lana betetzen baitu negua eta udaren artean. Aldaketa garai hori leku askotan antzeman liteke, baina, dudarik gabe, pelukerik dira horren testigu nagusietako bat. Hernaniko pelukeritan esan digutenez, jendeak "zerbait berria" eskatzen du bolada honetan, ausartago egoten baita.

Koloreak dira pelukeriko tendentzia nagusia. Kolorea nahi dute bezero gehienek, izan metxatan edo gabe, edo izan kolore bakarra edo konbinatua. Tendentzia koloreak argitzera eta konbinatzera dioa pixkanaka eta udaberrian antzematen da hori gehiena. Pelukeritan esan digutenez, oraindik emakumeak dira koloreak eta gauza berriak probatzera gehiena atrebitzen direnak, baina, gizonetako ere "asko ari dira aldatzen. Gehienbat gazteak".

Telebista moda markatzen

Modak eragin handia dauka jendearengan, eta moda hori markatzen dutenak telebista eta kalea dira, pelukeri ia denetan esan digutenez: "kalean lagunari ikusitakoa edo halakok zeramakiena halako telebista programan".

Hala ere, asko dira pelukeroaren esku uzten dutenak beren *look-a*. Kasu horretan pelukeroak bere eskua erakutsiko du, eta saiatuko da egokitzen, beraren gustoa eta klientearena. Horrek markatzen du, nolabait, pelukeria



Pelukerietako bezeroa pixkanaka aldatzen ari da. Gaur egun orraztera bakarrik jende gutxi joaten da pelukerira.

batetik bestera dagoen estilo diferentzia. Pelukeri batean horrela esan ziguten: "gure bezeroek gauza komodoak eta sinpleak nahi izaten dituzte, baina, ez naiz harritzen, gu ere halakoxeak gera-eta".

Bestalde, pelukeroek ere beren burua birziklatu behar izaten dute, eta asko dira hi-

tzaldi edo kurtsoetara joaten direnak. Kurtso horietan goi mailako moda-tendentziak ikusten dituzte, eta hortik gus-tatzen zaiena beren pelukerian praktikan jarriko dute, "bezeroek utzi ezker". Goi moda hori Londresek markatzen du gehiena, baina, Italia, Paris,artzelona eta Madril bera ere

nahiko puntan dabilta.

Kliente fijoak

Asko dira pelukerira urtean bitan edo hirutan azaltzen direnak, baina, pelukeri gehienek kliente fijoekin funtzionatzen dute. Kliente fijo hori hilabetean edo bi hilabetean behingoa izaten da, nahiz eta

oraindik geratzen diren batzuk astean behin pelukerira joaten direnak.

Pelukeria denetan gauza batean koinziditu dute: bezeroek gero eta gehiago nahi dutela etxean zaintzeko moduko ile-mozketa: komodoa eta sinplea; eta hilabetean behin berriz pelukerira. □

ZIMAK
ILEAPAINDEGIA
Iturregi, 2 - 1B
HERNANI - Tel. 556556

Gaspar
ERRESERBATU
ORDUA
Gutuzki: 9-1
Awtosaldezi: 4-6
Larobotan: 8-1,30
Elkano kalea, 16. Tel 943 556303

MARIA
URBIETA, 18
943 333271
GORJON

MAKOKI
Mota guztietako
Extensioak,
Rastak, Trenzak,
Naturalak, Artilezkoak
Piercing
Kardaberaz Kalea, 19-1
Tel.: 943 55 76 66

ILEAPAINDEGIA
BIOK
Jone eta Ana
Elkano kalea 18 beheka - 20.120 HERNANI
Tel. 943 33 30 32

KIMU
Izpizua kalea 1. Tel 943 551544

Ma Angeles
PELUKERIA
Urbietakalea 7
Tel. 943 555665
20120 - HERNANI

Arans
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma
Kale Nagusia, 2. Tel 943 556368

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
Kristina
Anabel
Elkano, 18 - Entlo. int. portal
HERNANI
Ordua hartzeko:
Tlf. - 943 556 751

Nafar Kalea 14
Hernani 20.120
943 33 24 41
ADATS
ILEAPAINDEGIA
Arantxa eta Txilar
Larrañaga

Hernanin 35 pelukeri daude, gehienak mixtoak, eta hirutik batek eskaintzen du estetika edo solariuma

■ Emakumezkoen pelukeriak eta barberiek jarraitzen dute, baina, eskaintza zabaltzen ari dira ■ Manikura eta solariuma gero eta pelukeri gehiagotan daude ■ Estentsio eta txurroak dira azken tendentzia.

HERNANIN 35 pelukeri daude gaur egun, eta kopurua goraka dioa azken urteetan. Pelukeri horietatik ia denak mixtoak dira, nahiz eta gutxi batzuk emakumezko edo gizonezkoentzat espezializatuak izan. Pelukeri gehienak eskaintza zabala goa egiten dute, eta esan liteke, horrek urritu duela tendentzia jakin batean espezializatuta dagoen pelukeri kopurua. Adibidez, estentsioak eta ile *rastak* leku batean baino gehiagotan egiten dituzte. Bestalde, Hernaniko pelukerien hirutik batek eskaintzen du pelukeriaz aparte beste zerbitzuren bat: estetika, solariuma, *piercing*-a...

Manikura eta makilajea
Pelukeriek eskaintzen dituzten zerbitzuetan gero eta

gehiago ari da sartzen estetika-lana. Batzuetan pelukeriak berak egiten du lan hori. Kasu horietan manikura eta makilajea da gehienek eskaintzen dutena. Beste batzuek berriz, estetizista bat daukate horretarako, eta eskaintza zabaltzen da: solariuma, depilazioa, tatuajea, pedikura... *Piercing*-a egiten duten pelukeriak ere badaude Hernanin.

Estentsio eta rastak
Esan liteke, pixkanaka estilo *ausartagoa*

ari dela sartzen pelukerietan. Bada jendea konformatzen ez dena ilea moztea edo tin-



Lehenago barberiak pixkanaka pelukeria izatera pasatzen ari dira.

tearekin, eta gero eta gehiago eskatzen dira estentsioak edo *txurroak*. Estentsioak 200 eu-

rotik gora balio dute, eta *rasta* naturalak (norberaren ilea) 180 eurotik gora. □


J.I. ARISTONDO GOROSABEL MEDIKUA - DERMATOLOGOA

“Ilea berez dago sano eta ez du behar hainbeste atentzio. Nahikoa du egunero garbitu eta nahi bada, orraztea”

ARISTONDO Gorosabel medikua, larru azaleko arazoetan espezializatua da eta Donostiako Gros auzoko anbulatorioan egiten du lana.

■ Zer egin behar dugu ilea sano mantentzeko?
Ilea berez dago sano eta ez du behar hainbeste atentzio. Egundero garbitu eta kito. Eta nahi izan ezker, orraztu eta sekatu.

Ileak briloa galtzen badu edo puntak irekitzen bazaizkio edo puskatzen bada, ez du esan nahi sano ez dagoenik. Gaizki zaindua egongo da, baina, sano.



Aristondo Gorosabel medikua.

■ Garbitzeak eta orrazteak zertan laguntzen dio ileari?
Ilea egundero garbitu eta orrazten badugu, ile ikusga-

ria eta polita edukiko dugu, ez sanoagoa. Ilea garbitzen ez badugu aireko kontaminazioa bertan geldituko da eta horrek briloa kenduko dio. Oraztearena, berriz, hildako ileak kentzeko da; eta ilea geuk sekatura, kaspax gutxiago izango dugu.

■ Tinte, fijatzaile, laka... horiek ez dute kalterik?
Ez, ez dute kalterik. Ezta mesederik ere.

■ Txanpu bereziek-eta, zertan laguntzen dute?
Txanpu bereziek ilea dotoretzen lagundu lezakete.

■ Nola ebitatu ilea galtzea?
Atzeratu egin liteke, baina, ez ebitatu. *Alopecia Andro-*

genikoa (buru-soiltasuna) rasgo genetiko bat da, gizonezkoen %50-eri eragiten diona. Badaude moduak atzeratzeko, baina, ez dago erabat gelditzerik.

■ Soiltasuna gero eta gehiago ikusten al da?
Ez. Betiko kontua izan da, eta ni honetan lanean ari naizen urteetan ez dira kasu gehiago edo gutxiago azaldu.

Ileak bizitza bat dauka, normalean 6 urte artekoa. 6 urte horietan hazi beharrekoa hazi eta gero hil egingo da eta erori. Ilea hiltzen denean beste bat aterako da eta gero beste bat, zuztarrak indarra galdu arte. □

HERNANIKO PELUKERIAK

KALEZ KALE

KALE NAGUSA

J. Bautista Arregi	Nagusia 33	943 557257
Itziar Arruabarrena	Nagusia 50	943 554083
Arans pelukeria	Nagusia 2	943 556368

KARDABERAZ

Julian pelukeria	Kardaberaz 18	616 631901
Makokipehukeria	Kardaberaz 19	943 557666
Oraingo pelukeria	Kardaberaz 68	943 557310

URBIETA

Maria Angeles	Urbietan 7	943 550881
Mari Camen	Urbietan 7	943 552081
Urbietan 17	Urbietan 17	943 331325
Maria Gorjon	Urbietan 18	943 333271

ELKANO

Gaspar pelukeria	Elkano 16	943 556303
Cristina & Anabel	Elkano 18 entb	943 556751
Bio pelukeria	Elkano 18	943 333032
Ana Fonseca	Elkano 35	943 330856

LATSUNBE

K.M. pelukeria	Latsunbe 2	943 557489
Nora pelukeria	Latsunbe 5	943 333587

GUDARIEN PL.

Plazako pelukeria	Gudarien plaza	943 550595
-------------------	----------------	------------

IZPIZUA

Kimu pelukeria	Izpihua 1	943 551544
----------------	-----------	------------

FLORIDA

Arantxa Otaegi	Florida 1	943 552019
----------------	-----------	------------

ETXEBERRI

Elena pelukeria	Etxeberrin 1 bb	696 026179
-----------------	-----------------	------------

KARM. LABAKA

Juan pelukeria	Karm. Labaka 6	943 550995
----------------	----------------	------------

ANTZOLA

Ita pelukeria	Antzola 30-a	943 332217
---------------	--------------	------------

PORTU

Ametza pelukeria	Portu 10	943 552118
------------------	----------	------------

TURREGI

Zin ak pelukeria	Turregin 2	943 556556
------------------	------------	------------

LIZEAGA

Gotzone pelukeria	Lizeaga 2	943 330733
-------------------	-----------	------------

NAFAR KALEA

Adots pelukeria	Nafarkalea 14	943 332441
Kixki-Kixki	Nafarkalea 17	943 330234

VICTOR HUGO

Isa pelukeria	Victor Hugo 7	943 333484
---------------	---------------	------------

LARRAMENDI

Sarah pelukeria	Larramendi 1	667 557630
-----------------	--------------	------------

Arantxa Otaegi

Pelukeria Mixtoa
Solariuma
Florida 1 behe - Tel: 943 552 019

PELUKERIA ONA
Fonseca
olarium
Elkano 5
943 33 08 56
Hernani

Urbietan 17
PELUKERIA

Urbietan kalea 17
Tel. 943 331 325
Hernani



pelukeria

victor hugo, 7
20120 hernani
tlf.- 943 333 484

Itziar
Arruabarrena
ILEAPAINDEGIA
Nagusia 50 - HERNANI
Tel.: 943 554 083

JULIAN

Pelukeria
Gizonezkoentzat
Tratamentu
kosmetologikoak
Kardaberaz 18 - behe
Tel.: 616 63 19 01

Zure itxura garrantzitsua da
ZAINDU EZAZU HEMEN
M.CARMEN
PELUKERIA

Urbietan etorb. 7 - 1º B
Tel.: 943 55 20 81 - HERNANI

ileapaindegia
Gotzone
Tel: 943 330 733
Mobila: 635 711 772
Lizeaga, 2
20120 HERNANI